

IRIZAREK 25 urtetan zehar Gipuzkoako Enpresa Sarietan saritu diren enpresen zikloa isten du

- *Gipuzkoako Bazkondeak 2016ko kudeaketa txostena aurkeztu du, nazioartekotzeko arloan Gipuzkoako 700 enpresa baino gehiagoarekin egindako lana nabarmenduz.*
- *Gipuzkoako Bazkondeak **IRIZARi** eman dio urteko “Gipuzkoa Enpresa” saria.*
- *“Enpresa Nazioartekotzeari” saria **Copreciri** egokitu zaio, “ETE enpresa industrialari” saria berriz, **Createch Medicalentzat** izan da eta “Zerbitzu enpresari” saria **Aita Mennirentzat**.*
- ***Banco Sabadellek** babestu duen sari banaketa ekitaldia Gipuzkoako Bazkondearen egoitzan burutu da eta bertan Arantza Tapia, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailburua izan da eta baita Markel Olano, Gipuzkoako Diputatu Nagusia ere.*

Donostian - 2017ko Martxoaren 17an – Gipuzkoako Bazkondeak Ormaiztegiko IRIZAR enpresa saritu du, gaur, urteko “Gipuzkoako Enpresa” sariarekin, horrela Gipuzkoako Enpresa Sarien banaketaren 25 urteen zikloari itxiera emanez. Hogeita bost urte hauetan lurraldeko 100 enpresa baino gehiago saritu dira, horien artean nabarmentzekoak sari nagusia jaso dutenak, urteko Gipuzkoako Enpresa saria: CAF 1993an, Copreci 1994ean, Tesa 1995ean, TTT 1996an, Irizar S.Coop 1997an, Aristrain 1998an, Bombas Itur 1999an, Marcos Larrañaga e Industrias Ibili 2000an, Tekniker 2001ean, Industrias AGME 2002an, Grupo GUREAK 2003an, Lagun Artea 2004ean, Ikusi 2005ean, Grupo Jema 2006an, TS Fundiciones 2007an, Fundación Inasmet 2008an, Grupo Calcinor 2009an, Orona S. Coop 2010ean, Grupo Uvesco 2011ean, Egile Corporación 2012an, Reiner 2013an, Orkli S. Coop 2014ean, Indar 2015ean, Ternua 2016ean eta Irizar 2017an.

Bilakaera ezberdina izan duten izen handiko hogeita bost enpresa dira hauek, Gipuzkoako Bazkondeak azken 25 urte hauetan izan duena bilakaera ezberdina bezalaxe. Iazko urteko ekitaldian zehatz mehatz, 81 enpresa berri sortu ziren Ekintzailatza Zerbitzutik, Lan Zerbitzutik berriz 88 laneratze lortu ziren, zuzendaritza eta enpresa prestakuntza ikastaro eta mintegietan 2.900 pertsonen parte hartu zuten bitartean. Nazioartekotzeko arloan, Gipuzkoako 700 enpresekin egindako lana nabarmendu da, bereziki nazioarteko aholkularitzan egindako 122 proiektuak, hala nola Gipuzkoako 137 enpreseki zuzendutako 195 nazioarteko negozio aukerak. Gipuzkoako Bazkondeko emaitza ekonomikoari dagokionez, aipatu urteko ekitaldia 59.743 eurokin amaitu duela.

Kudeaketa-txostena Gipuzkoako Enpresa Sarien banaketa ekitaldian aurkeztu da. Laugarren urtez jarraian **Banco SABADEL**len babesa izan duen ekitaldi honetan Gipuzkoako enpresen lana goraipatzen da, lurraldean aberastasuna eta lana sortzen dutenak diren adinean. Irizar enpresaz gain, **Coprecik** “Enpresa Nazioartekotzeari” saria jaso du, **Createch Medical**ek “ETE enpresa industrialari” saria eta **Aita Mennik** Zerbitzu enpresari” saria.

Saritutako Enpresak

IRIZARek urteko **“Gipuzkoako Enpresa”** saria jaso du produktuaren dibertsifikazioari esker berriro sortzeko gaitasuna izan duelako. Irizar, teknologia altuko produktu batekin nazioartekotua dagoen enpresa da eta Gipuzkoa munduan kokatzen ari dena.

Autobus eta autokar sektorean lider den enpresa talde baten enpresa nagusia da Irizar. Elektronikako, komunikazioko eta makina errotatibatako sektoreetan erreferentea den era berean. Irizar 1889an sortu zen eta 128 urteko historia ondoren, gaur egun talde egonkor bat da, geografikoki eta industrialki dibertsifikatuta dagoena eta hazkunde iraunkor batean murgilduta. Markarengatik, teknologiarengatik eta iraunkortasunagatik apustu egin dute, berezko markaren produktuengatik bai autobus eta autokar elektrikoetan, baita parte duen beste sektoretako produktuetan ere.

2.700 pertsonen osatzen dute Irizar taldea. Bere aktibitatea autobus eta autokarretako bost produkzio lantegietan egiten da (Espainia, Maroko, Brasil, Mexiko eta Hegoafrika) eta Espainian aktibitatea duten sektore ezberdinetako beste sei konpainietan (Hispacold, Masats, Jema, Datik, Alconza e Irizar e-mobility), dibertsifikazio industrialeko politikaren emaitza gisa.

Egoitza nagusia Ormaiztegin kokatzen da, Creatio aurkitzen den leku berebanean, Irizar taldeko Ikerketa eta Garapen Zentrua, berezko sistema eta produktu teknologikoen ikerketa eta garapen prozesuetan epe luzeko ikusmirak dituen. Maiatzean Irizar e-mobilyt Adunan hasiko du bere aktibitatea, 18.000 m² estalitako azalera erabilgarria duen 37.000 m² lursail batean.

2009. urtea erabakiorra izan zen Irizaren historian, krisi garaian Irizarrek iraultza estrategiko bat egiten duelako autokar integralen fabrikatzailea izateko erabakia hartuz. Erabaki hau garrantzi handiko izango da enpresaren etorkizunerako, garai hartan merkatuko enpresa karrozari gehienak arazoak izaten hasten dira eta desartzen hasten dira, Irizar berriz, sendotu egiten da emaitza historikoak lortzera iritsi arte. Bi urte beranduago, 2011ean Irizar markako autokar integralen sorta europako merkatura zabaltzen da, honek karrozero izatetik autokarren fabrikatzaile izatera salto egiteko aukera ematen dielarik. Urte horretan bertan pausu garrantzitsu bat ematen da elektromugikortasunera eskainitako negozio berri bat sortuz eta hiru urte beranduago 2014 urtean, 100% elektrikoa den autobusaren lehen unitateak sortzen dira.

“Enpresa Nazioartekotzeari” saria Aretxabaletako **Coprecirentzat** izan da. Oraingo honetan Gipuzkoako Bazkondeak Copreciren nazioarteko DNA nabarmendu du, bere lehen fabrika atzerrian, Mexikon, orain 28 urte ireki zutela kontutan izanik. Nazioartekotu zen Mondragon taldeko lehen kooperatiba izan zen. Eta naziortean presentzia zabala izateaz gain bertan lana sortzen du.

Copreciren aktibitatea 1963an hasten da 40 pertsonen osatzen duten talde batekin, gas balbulen fabrikazioarekin Aretxabaletako herrian (Gipuzkoan). Gaur egun Copreci enpresa global bat da, munduan barrena banatutako 7 lantegi produktiboietan banatuta dituen 1.900 pertsonen osatzen dutelarik, eta horietatik 670ek Aretxabaletan lan egiten dute. Copreci etxetresna elektrikoaren osagaien mundu mailako fabrikatzaile nagusienetako bat da eta bere bezeroak etxetresna elektrikoaren sektoreko marka nagusienak dira, hala nola, Bosch Siemens, Whirlpool, Indesit, Electrolux, General Electric, Fagor, Miele, Haier, Weber eta Char Broil, beste batzuen artean.

Nazioartekotzeari dagokionez, Coprecik kanpoko bere lehen lantegia Mexikon ireki zuen, orain dela 28 urte. Txinan ere beste bi lantegi ditu, hamarkada bat baino denbora gehiago bertan daudelarik. Horrez gain, atzerriko sarea Txekiako Errepublika, Turkia eta Italian zehar zabaltzen da. Joan den urtean kooperatibak 210 miloi fakturatu zituen. Aretxabaletako lantegiak, taldeko handienak eta berriak, salmenten %53a eskaini zuen. Altsasun (Nafarroan) beste bat dute, %2ko diru sarrerak gehitzen dituenak. Mexikok Copreciren negozio osoaren %13a suposatzen du eta Txekiar Errepublikak eta Turkiak %12 eta %10a hurrenez hurren. Txinan %6ko salmentak lortzen dituzte, eta joan den urtean irekitako bigarren lantegiarekin ratio hau hobetuko dute.

Zazpi herrialde hauetatik Coprecik mundu guztiari eusten dio, merkatuei egokituz, kudeaketa sistema berdin bat eta know-how teknologiko berdin bat partekatuz. Gaur egun, Coprecik etorkizuna baikortasunez ikusten du, Europa komunitatearen kanpo inguruan, Ameriketako kontinentean eta Asian hazteko asmoekin.

“**ETE Enpresa Industrialari**” kategorian Gipuzkoako Bazkondeak Mendaroko **Createch Medical** saritu du, doitasun altuko teknologiak erabiliz hartz-protesiak eta aurpei-masailletakoak fabrikatzen dituen enpresa aintzindari bat. Euskadin lehena berezko produktua 3D inpresoren bitartez fabrikatuko duenari.

Createch Medical 2006an sortu zen, Bistaeder Hartz Klinikak ((Eibar) eta Egile Corporationek (Mendaro) elkarte bat sortzen dutenean Createch Medical sortzeko, horrela hartz sektoreko profesionalak eta sektore aeronautikorako doitasun handiko piezak egiten dituen industria talde espezializatu bat elkartuz, honekin abangoardiako irtenbide teknologikoak garatzeko ikuspegi aberats bat lortzen dutelarik.

2007 urtean Createch Medicaiek bere lehen produktuak jartzen ditu merkatuan, eta 2009. urte arte produktuaren garapenean eta merkatuaren komertzializazioan zentratzen da, azkar batean nazio mailako merkatuan aintzindari bihurtuz. 2010 urtean nazioartekotzeko prozesua hasten da herrialde ezberdinetan. Urte bat beranduago berezko delegaritzak eta bertako partnerrak lortzen dituzte Alemanian, Beneluxen eta Israelen, eta jarraian Frantzia, Ingalaterran eta Suedian.

2013. urtean mundu mailako akordio bat lortzen du Sratumannekin, inplante salmentan aintzindaria den enpresa batekin. Urte horretan bertan, akordioa zabaldu egiten da, Straumann Createch Medicalen jabetzan sartuz, konpainiaren %30a bere eskuetan geratzen delarik. Itunak bere emaitzak ematen ditu kanpo salmentetan jausi bat emanaz, 2013an %14a izatetik 2016an %70a izatera.

Gaur egun, Createch Medicaiek bere fakturazioaren %8a eta %10a I+D+i aktibitateetara bideratzen ditu eta une honetan 47 langile ditu, horietatik %51a maila altuko tituludunak dira, honekin behar den kualifikazio mailaren ideia bat egiten dugularik, negozioak behar duen ezagutza eta teknologia iraunkorraren erabilera ikusiz.

Arrasateko **Aita Menni** enpresak, Gipuzkoako “**Zerbitzu Enpresa**” saria eraman du, giza harretan arituta zerbitzua profesionalizatzeko gaitasuna izan dutelako euren zerbitzuak gizartera egokituz.

Aita Menni pertsoneri eta gizarteari zerbitzua eskaintzeko ekimena da, sendoa eta iraunkorra, enpresa irizpideekin kudeatutakoa eta etorkizunera bideratzen dena. 125 urte daramatza Gipuzkoari eta bere ingurune gertukoarenari giza zerbitzua eskainiz. Gaur egun, psikiatريان, desgaitasun intelektualean eta tratamenduan eta buruko gaitzen errehabilitazioan eredu da Euskal Autonomi Erkidegoan.

Azken bi hamarkadetan Aita Mennik eraldatze prozesu bat egin du tratamendu eta arreta unitate bereziak garatuz, eta bere zerbitzuak gizartera gerturatuz. Hau guztia egin ahal izateko Aita Mennik 850 profesional baino gehiago ditu Euskadiko zentru ezberdinetan banaturik.

Aita Menni 1889an sortu zuen San Benito Mennik Arrasateko Santa Agedako banuetxe zaharretan, eta orain “la Congregación de las Hermanas Hospitalarias del Sagrado Corazón de Jesús”ek du jabetza. Joan den mendeko 60. hamarkadan, zaintza psikiatrikoaren beharrak eta gaisoen ospitaleratzeak aldaketak jasaten zituen psikofarmako berrien sartzearekin. Buruko gaisotasunen hobekuntzaren ezagutzak tratamenduak aldatzeko aukera ekarri zuten ospitaleratzeak gutxituz eta ahal zen neurrian gaisoa bere eguneroko bizitzan txertatuta mantenduz. Egoera honen aurrean Aita Mennik zaintza proiektu bezala garatzeko apustua egin zuen gaisoen eta gizartearen beharretara egokituz bi ardatzetan eusten den estrategia batekin: balio gutxiagoko zerbitzuak deszentralizatuz eta balio handiagoko eta espezializatutako zerbitzuak Gesalibargo (Arrasateko) Aita Menni Ospitaleko gunen nagusian bilduz eta garatuz.

Banco Sabadellek babestu duen sari banaketa ekitaldia Gipuzkoako Bazkundearen egoitzan burutu da. Bertan Arantza Tapia, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saiburua izan da eta baita Markel Olano, Gipuzkoako Diputatu Nagusia ere, Gipuzkoako ekonomia eta enpresa munduko beste ordezkari garrantzitsuekin batera.

Informazio gehiago:

Irune Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688 884 347